

EBAZPENA, OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEN DITUENA, ETA HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA EGITEN DUENA, BATERA, BARNEKO ETA KANPOKO DEIALDIAN, GARBIKETA-ARLOKO GARBIKETA ARLOKO ATALEKO ARDURADUN KATEGORIAKO ENPRESAREN ALDI BATERAKO BEHARRAK ASETZEKO LAN-POLTSA BAT SORTZEKO.

Garbiketa arloko ataleko arduraduna kategorian garbiketa-arloa indartzeko beharra antzeman denez, beharrezkoa da dagokion hautaketa-prozesua hastea garbiketa-arlorako garbiketa arloko ataleko arduraduna lan-poltsa sortzeko.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak, erantzukizunak eta sarbide-sistema (aldi baterako lan-poltsa) Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 29ko bilkuran onartutako lanpostuen deskribapen- eta balorazio-memorian jasotakoak dira, eta hitzarmen kolektiboaren eta ebazpen honekin batera doazen oinarrien parte dira.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua aplikatzeak hautaketa-prozesua irekitzea eskatzen du. Hautaketa-prozesu horrek honako printzipio hauek bermatu beharko ditu: deialdien eta horien oinarrien publikotasuna, hautaketa-organoetako kideen gardentasuna, inpartzialtasuna eta profesionaltasuna, hautaketa-organoen jardunean independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, hautaketa-prozesuen edukiaren eta garatu beharreko eginkizunen edo zereginen arteko egokitasuna eta bizkortasuna, objektibotasunari kalterik egin gabe.

Hautaketa-prozesu nonetan, Indesa 2010 SM enpresako zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak 2026ko maiatzaren 15ean adostutako oinarriak erabili dira.

Horregatik guztiagatik, nire eskumeneko ahalmenak erabiliz:

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Oinarri orokorrak eta espezifikoko onartzea, bai eta enpresaren aldi baterako beharrak betetzeko garbiketa arloko ataleko arduraduna lan-poltsa bat sortzeko barne-batzordearekin eta kanpo-batzordearekin egindako deialdiko hautaketa-prozesua arautuko duten eranskinak ere.

BIGARRENA.- Plaza horretara sartzeko hautaketa-prozesuaren deialdia onartzea, eta eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri orokorretan adierazitakoa izango da.

HIRUGARRENA.- Aurreko xedapenean adierazitako hautaketa-prozesuko hautaketa-organo izendatzea:

A. Hautaketa-organoaren osaera:

- Lehendakaria: Indesa 2010eko operazio-burua edo edo hark eskuordetutako pertsona.
- Kidea: Indesa 2010eko garbiketa arloko burua edo hark eskuordetutako pertsona.
- Kidea: Indesa 2010 SMko Orientazio-teknikaria edo hark eskuordetutako pertsona.

B. Idazkaritza:

Hautaketa-organoko idazkaria Indesa 2010 SMko idazkari kontu-hartzailea izango da, edo haren ordezkoa, botorik izango ez duena.


C. Batzordearen ordezkariak

Enpresa Batzordeko ordezkari batek parte hartu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau web orri korporatiboan eta lantokietako iragarki-tauletan argitaratzea, eta ebazpen honen jakinarazpena enpresa-batzordeari bidaltzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 12 (a).

Sin. Ander Eguidazu Aldalur



GARBIKETA ARLOKO ATALEKO ARDURADUNA KATEGORIAN LAN POLTSA BAT BETETZEKO BARNE ETA KANPO DEIALDI BATERATUAREN BIDEZKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. ARAU OROKORRAK

1.1 Oinarri orokor eta oinarri espezifikoko hauen xedea da lanpostuen zerrendako garbiketa arloko ataleko arduraduna kategorian aldi baterako beharrak betetzeko lan poltsa barne eta kanpo deialdi bateratuaren bidezko hautaketa prozesua erregulatzeko arauak ezartzea, hori guztia INDESA 2010 SMren hitzarmen kolektiboan eta sozietatearen lanpostuak deskribatzeko eta baloratzeko memorian jasotakoaren arabera.

1.2 Oro har, probei oinarri hauekin xedatutakoa aplikatuko zaie. Hautaketa sistema, baldintza espezifikokoak, hautaketa proba, puntuazioak eta gainerako arau zehatzak oinarri hauekin jasotako hautaketa prozesua arautzen duten oinarri espezifikoen arabera erregulatuko dira.

1.3 Deialdiak bi zerrenda baztertzaila izango ditu:

- A zerrenda: Barne sustapeneko modalitatean aurkezten diren hautagaien zerrendak osatuko du.
- B zerrenda: Kanpoko modalitatean aurkezten diren hautagaien zerrendak osatuko du. Era berean, bi zerrenda bereiziko dira, bigarrena gutxienez % 33ko desgaitasuna egiaztatuta duten hautagaiek osatua.

Hautaketa prozesu honen xede diren plazen esleipenak honako lehentasun hauek errespetatuko ditu:

I.- A zerrendako hautagai batek edo gehiagok probak gainditzen badituzte, lortutako puntuazioaren arabera aukeratuko dira hautagaiak. A zerrendan baliozko hautagairik aurkezten ez bada edo hautaketa prozesua inork gainditzen ez badu, B zerrendatik hautatuko da.

II.- B zerrendan, gutxienez, % 33ko desgaitasun egoera egiaztatu den ala ez kontuan hartuta bereizi diren hautagaien hurrenkera egin da hautaketa prozesuan atera duten puntuazioaren arabera. Berdinketa gertatuz gero, emakumezko hautagaia lehenetsiko da (neurri hori emakumeen ordezkariaren arabera erabakiko da, dena delako plazan % 40tik beherako ordezkari-tza duenean).

1.4 Hautaketa prozesua gainditu eta aurreko oinarrian zehaztutako moduan plazaren esleipendun ez diren hautagaiak lan poltsa batean jasoko dira. Lan poltsak bi zerrenda

izango ditu, eta enpresan sortzen diren aldi baterako beharrei erantzuteko deialdia zerrenda bakoitzeko hurrenkeraren lehentasunaren arabera eta aurreko oinarrian adierazitako zerrenda bakoitzaren barruko hurrenkeraren arabera egingo da.

1.5 Deialdiko lanpostuak betetzeko ezarri diren betekizunen arabera, honako oinarri arautzaile hauen arabera derrigorrezkoak eta baztertzailak diren probak gainditzen ez dituzten hautagaiek ezin izango dituzte esandako plazak behin betiko edo aldi baterako bete.

1.6 Prozesua hautagai bakar batek ere gainditzen ez badu, plaza esleitu gabe geratuko da, eta, hala badagokio, beste deialdi bat egingo da. Deialdi hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean onartu beharko da, aurreko prozesua esleitu gabe utzi zen egunetik aurrera zenbatzen hasita. Prozesu berrirako deialdia egitean, ez da beharrezkoa izango batzordearen alde aurreko entzunaldiaren izapidea bideratzea, baldin eta prozesu berriaren oinarrietan jasotzen diren aldaketek eskaerak aurkezteko epeari besterik ez badiote eragiten.

1.7 Prozesuak baloratuko du hautagaiek, gutxienez, % 33ko desgaitasun-maila egiaztatzea, oinarri orokor hauetako 1.3 oinarrian ezartzen den moduan.

1.8 Hautaketa-prozesu honen jakinarazpen guztiak INDESA 2010 SMren web-orriko enplegu atalaren bidez egingo dira <https://www.indesa.eus/eu/enplegua/>, nolahi ere, modu ez loteslean informazioa bidaliko da parte hartzeko eskabidean adierazten den posta elektronikora.

BIGARRENA.- HAUTAGAIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

2.1 Eskatutako titulazio akademikoa eduki beharko du, edo, bestela, titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izan beharko ditu.

Hautaprobak onartzeko eta horietan parte hartzeko, oinarri orokorretan adierazitako betekizunez gain, izangaiek Erdi Mailako Lanbide Heziketako titulazioa izan beharko dute edo hori emateko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte jardueraren arloan.

Deialdira sartzeko aukera ematen duen erdi-mailako lanbide-heziketako goi-mailako titulazio bat aurkezten bada; titulazio hori baliozkoa izango da hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, eta merezimendu gisa zenbatuko da, parte hartzeko eskatzen den gutxieneko prestakuntza baino handiagoa izateagatik.

2.2 B motako gidabaimena izatea.

2.3 Antzeko lanpostu batean gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatua izatea (garbiketa-taldeen kudeaketa). 2.0 oinarriko egiaztatutako esperientzia garbiketa-eginkizunetako behargin espezialista gisa bada, 2.3 oinarri honetarako egiaztatutzat joko da.

2.4 Euskal sektore publikoa osatzen duen edozein administrazio publiko edo erakunde publikoren zerbitzutik diziplinazko espedientearen edo kaleratzearen bidez bereizita ez egotea, eta, ebazpen irmoa dela bide, eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik ez egotea.

2.5 Dagozkion eginkizunekin bateraezinak diren osasun arazorik ez izatea. Osasun azterketa egin beharko da nahitaez eta hautagaia plaza betetzeko gai deklaratu behar da.

Nahitaezko baldintza guztiak eta aurkeztu beharreko merezimenduak oinarri hauek argitaratu aurreko egunean eduki beharko dira.

HIRUGARRENA.- ESKABIDEAK

3.1 Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek oinarri hauei erantsi zaien eskabidean (0 eranskina) adierazi beharko dute. Eskabidea honela aurkeztu beharko da:

- Aurrez aurre, Indesa 2010 SM sozietatearen egoitza nagusian (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz), 08:00etatik 15:00etara.
- Posta elektronikoz, helbide honetara bidalita: indesaprocesoselectivo@araba.eus erreferentzia gisa, garbiketa arloko ataleko arduraduna kategorian lan poltsa adierazita.

Eskabidean hautaketa prozesuan parte hartzeko modua **adierazi beharko da**, hau da, hautagaiak barne sustapeneko modalitatean edo kanpo modalitatean parte hartzen duen. Era berean, **eskabidearekin batera**, 0 Eranskina, INDESA 2010 SMko Giza Baliabideetako eta Orientazioko Departamentuan konpultsatuko diren jatorrizko agiriak eta kopiak aurkeztu beharko dira, beheko zerrendan ageri direnak, hain zuzen.

- Eskabide aurkezten den egunean indarrean dagoen NANen fotokopia.
- Gidabaimena, betiere oinarrietan eskatzen bada.
- 2.2 oinarrian adierazitako titulu eta baldintzen egiaztagiria.
- 2.3 oinarrian adierazten den esperientziaren egiaztagiria, honako agiri hauek nahitaez erantsita:
 - Curriculum vitae.
 - Lan bizitzaren agiri eguneratua (gehienez 3 hilabeteko antzintasuna).
 - Lan kontratuak.
- Kasua bada, **gutxienez % 33ko desgaitasuna** onartuta duela dioen egiaztagiria.
- Baloratu beharreko merezimenduen egiaztagiria. Merezimenduen dokumentuak egiaztatzeko, jatorrizkoak eta haien kopiak aurkeztuko dira eta INDESA 2010 SL sozietatearen Giza Baliabideetako Departamentuak

konpultsatuko ditu kopiak. Nahitaezko eta baztertzeko ariketak gainditu dituzten hautagaien merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

- Barne sustapeneko modalitatean, enpresak berak egiaztatuko du hautagaia INDESA 2010 SL sozietatearen lan-kontratuko langilea dela.
- Zinpeko aitopena eta datu pertsonalak erabiltzeko baimena, III. Eranskina

Autonomoen araubideko altarekin ez da beharrezko esperientzia egiaztatuko; harekin batera, egindako lanen enpresa hartzailleek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, lanen edukia eta iraupena zehaztuta.

3.2 Eskabideak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 15ean hasi ETA 2026KO EKAINAREN 30EKO 12:00ETAN AMAITUKO DA.

3.3 Deialdi hau sozietatearen webgunean, egoitza nagusiko iragarki taulan eta lantokietako iragarki tauletan argitaratuko da, eta eskaintzaren berri emango zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eta Arabako Foru Aldundiaren enplegu plataforma publikoari.

3.4 Hautaketa organoak ezin izango ditu baloratu ezarritako epearen barruan behar bezala alegatu eta egiaztatu ez diren merezimenduak, ez parte hartzeko eskabidea aurkezteko epearen barruan, ez hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren ematen den zuzentzeko epearen barruan.

3.5 Hautaketa-prozesuan parte hartzea borondatezkoa da eta berezko baimena ekarriko du prozesu hori garatzeko behar diren datu pertsonalak tratatzeko eta, hala badagokio, egin beharreko probetan, bai proba psikoteknikoetan, bai nortasunari eta/edo elkarrizketari buruzkoetan.

Eskabidea aurkeztean berariaz adieraziko da datu pertsonalak tratatzearekin bat datorrela, hautaketa prozesuaren helburuetarako.

LAUGARRENA.- HAUTAGAIEN ONARPEN

4.1 Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Giza Baliabideetako eta Orientazioko zuzendaritzak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak egingo ditu, parte hartuta modalitateak berezita, barne sustapenaren arabera eta kanpo sustapenaren arabera, eta zerrenda horien berri emango die hautaketa organoari eta Enpresa Batzordeari. Lau egun balioduneko epea ezarriko da parte hartzailleentzat erreklamazioak egin ditzaten, eta, hala badagokio, konpontzeko modukoak diren akatsak, hutsuneak edo omisioak zuzentzeko.

Informazioa sozietatearen webgunean argitaratzen denean, jakinarazpen pertsonalaren ondorioak izango ditu epeak zenbatzeari dagokionez; hala, hautagaiei eta batzordeari igorritako jakinarazpenak informazio izaera izango du.

4.2 Erreklamazioak egiteko epea igarotakoan, onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak eta aurkeztutako erreklamazioak helaraziko zaizkio hautaketa organoari, onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendak onar ditzan parte hartzaileen modalitate bakoitzaren arabera, hots, barnekoa eta kanpokoak. Behin betiko zerrendak sozietatearen webgunean argitaratuko dira, eta aurkeztutako hautagaiei eta batzordeari jakinaraziko zaizkie.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA ORGANOAK

5.1 Deialdia onartzen duen ebazpenak zehaztuko ditu hautaketa organoko kideen izenak. Hautaketa organoko kideei urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenean, 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio eta errekusazio kasuak aplikatuko zaie.

5.2 Hautaketa organoak ariketak egiteko aurreikusi den hurrenkera aldatzeko eskubidea izango du. Horrela, ariketa bat baino gehiago egun berean egin daitezela ezartzeko eskumena izango du.

5.3 Hautaketa organoaren jarduna baliozkoa izan dadin, boto eskubidea duten kideen gehiengoa bertaratu beharko da, eta batzordeburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute. Erabakiak hartzeko, Hautaketa Organotik bertarutzen diren kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da, eta berdinketa egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoak ebatziko du.

5.4 Hautaketa-organok autonomia funtzional osoz jardungo du, prozeduraren bidezko ordena eta legezotasuna zainduz; beste alde batetik, sortzen diren zalantzak ebazteko baimena izango du. Horrez gain, prozesuan zehar sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko erabakiak hartu ahal izango ditu. Oinarri orokorren edo espezifikoen edukia interpretatu ahalko du. Hautaketa prozesua garatzeari dagokionez, hautaketa organoak hartzen dituen erabakiak sozietatearen webgunean argitaratuko dira, eta prozesuan parte hartzen duten hautagaiei eta batzordeari jakinaraziko zaizkie.

5.5 Hautaketa organoko buruak neurri egokiak hartuko ditu, idatzizko hautaketa aldiko ariketak hautagaiak nor diren jakin gabe zuzenduko direla bermatzeko.

5.6 Hautaketa prozesua egin ondoren, hautaketa organoak deialdiko plazetarako onartu dien hautagaien zerrendak egingo ditu, 1.3 oinarrian zehazten den eran.

5.7 Nolanahi ere, lanpostuaz jabetzeko probaldia 6 hilabetekoa izango da. Probaldi horretan zehar izangaiek zein enpresak uko egin ahalko dute, eta halakoetan ez dute

izango kalte ordaina kobratzeko eskubiderik; lan egindako egunak bakarrik ordainduko dira.

5.8 Hala ere, hautatutako pertsonak, plaza atxikita dagoen Arloko zuzendaritzaren iritziz, ezarritako probaldia gainditzen ez badu, zuzendari kudeatzaileak ebazpena emango du proba gisa egindako esleipena baliogabetzeko, eta, kasu horretan bakarrik, hurrengo hautagaiari esleitu ahalko zaio plaza, zerrendetan indarrean dagoen lehentasun hurrenkeraren arabera, eta zerrenden barruan, 1.3 oinarriak dioenari jarraikiz, eta horrela hurrenez hurren.

5.9 Probaldia ebaluatu eta kalifikatuko da, atal hauek baloratuz:

- Ekimena.
- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Antolatzeko gaitasuna
- Ikasteko jokaerak.
- Talde lana eta elkarlanerako jokaerak
- Arazoak konpontzea
- Barneko eta kanpoko harremanak.
- Emozioen kudeaketa

SEIGARRENA.- PROBEN NONDIK NORAKOA.

6.1- **Deialdi bakarra** egingo da zerrenda bietako hautagaien zat, eta agertzen ez direnak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira. Ariketa bakoitzera indarreko NANarekin edo gidabaimenarekin joan beharko dira.

6.2 Ariketak non eta noiz izango diren jakinaraziko zaie hautagaiei.

6.3 Proba bakoitzaren emaitzak argitaratzeaz batera, lau egun balioduneko epea irekiko da automatikoki, alegazioak aurkezteko. Epe hori eta alegazioen behin-behineko emaitzak behar bezala argitaratuko dira.

6.4 Hautaketa organoak INDESA 2010 SM enpresatik kanpoko langileengana jo ahalko du zenbait ariketa baloratzeko eta egiteko.

ZAZPIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1 Hautaketa fasea gainditu dutenen behin-behineko kalifikazioak sozietatearen egoitzan argitaratuko dira (Alaba Jeneralaren kalea 10, 5. solairua, 01005 Vitoria-Gasteiz), INDESA 2010 SMren webgunean ([/www.indesa.eus](http://www.indesa.eus)), eta hautaketa prozesuan parte hartu duten hautagaiei jakinaraziko zaizkie. Behin-behineko kalifikazioekin batera, test formatuan egiten diren proben erantzun zuzenak argitaratuko dira.

Informazioa sozietatearen webgunean argitaratzen denean, jakinarazpen pertsonalaren ondorioak izango ditu epeak zenbatzeari dagokionez; hala, hautagaiei eta batzordeari igorritako jakinarazpenak informazio izaera izango du.

7.2 Lau egun balioduneko epea irekiko da ezagutzaren eta merezimenduen fasean lortutako kalifikazioen arabera aukeratu diren hautagaien behin-behineko zerrenda dela eta alegazioak aurkezteko. Zerrenda hori 1.3 oinarrian ezartzen den eran prestatuko da, eta, alegazioak banan-banan ebatzi eta jakinarazi ondoren, sozietatearen webgunean argitaratuko da zerrenda eta hautagaien behin betiko zerrendaren berri jakinaraziko zaio batzordeari, 1.3 oinarrian ezartzen den eran.

ZORTZIGARRENA.- KONTRATATZEKO PROPOSAMENA.

8.1 Aukeratutako hautagaiek plazak aukeratu ondotik, hautaketa organoak INDESA 2010 SMko zuzendari kudeatzaileari bidaliko dio aukeratu diren hautagaiak kontratatzeke proposamena. Horretarako, 1.3 oinarrian ezartzen diren lehentasunak eta hurrenkera aplikatuko da proposamenean, eskaintzen diren plaza guztiak bete arte.

8.2 INDESA 2010 SMko zuzendari kudeatzaileak deitutako plazei dagokien lan kontratua sinatzeko eskumena izango du enpresaren beharren arabera, eta hautagai zerrendeia dagokion deia egingo zaie, lan poltsaren ordenaren arabera.

8.3 Hala ere, kontratua sinatu baino lehen, nahitaezkoa izango da enpresako medikuntza zerbitzuak osasun azterketa egitea eta lanpostua beteko duena gai ote den adieraztea.

Mediku-txostena aldekoa ez bada edo plazaren esleipenduna den hautagaik uko egiten badio, hautaketa organoak berriro proposatuko dio INDESA 2010 SMko zuzendari kudeatzaileari plazarik lortu ez duten hautatuen zerrendako hurrengo postuan ageri den hautagaia bete dezala, eta horrela, hurrenez hurren, zerrenden lehentasun hurrenkerari eta zerrenda bakoitzeko hautagaien hurrenkerari jarraituz, 1.3 oinarrian ezartzen den eran.


BEDERATZIGARRENA.- LAN BALDINTZAK.

Lanpostua lortzen duen pertsonak lanpostuaren berezko lanaldia, lan baldintzak eta eginkizunak izango ditu (II. eranskina), bai eta INDESA 2010 SMren hitzarmen kolektiboa ere.

HAMARGARRENA.- LANGILEEN ALDERDIAK PROZESUA KONTROLATZEA.

Hautaketa organoak hautaketa prozesuaren espedientea erakutsi ahalko dio enpresa batzordeari, baina une oro bermatuko du espedienteko informazioaren pribatutasuna eta isiltasuna. Batzordeak aurreko oinarrietan adierazitako epeen barruan egin beharko lituzke prozesuari buruzko alegazioak, entzunaldiaren eta alegazioen izapidea irekitzen duten prozesuko egintzei dagokienez.

Zuzendari kudeatzailea
Sin.- Ander Eguidazu Aldalur
Vitoria-Gasteiz 2026ko ekaiaren 12



SARBIDE SISTEMA - HAUTAKETA PROZESUA-

Hautaketa ezagutzaren fasearen eta merezimenduen fasearen bidez egingo da.

A.- EZAGUTZAREN FASEA.

Oposizio fasean, **gehienez ere, 40 puntu** atera ahalko dira, atal hauen arabera:

1. Lehen ariketa eta bakarra

Nahitaezko eta baztertzeko ariketa izango da izangai guztientzat. Gaitasun proba bat izango da, deitutako lanpostuaren profileraz zenbateraino egokitzen den baloratzeko.

Ariketa hau **gehienez 40 punturekin kalifikatuko da, eta gutxienez 20 puntu beharko dira gainditzeko**. Horietan, hautagaien trebetasunak ebaluatuko dira honako alderdi hauekin:

- Ekimena: 8 puntu
- Antolatzeko gaitasuna: 8 puntu
- Aginte-dohaina: 8 puntu
- Talde-lana: 8 puntu
- Komunikazio-trebetasunak: 8 puntu

B.- MEREZIMENDUEN FASEA.

Ez da baloratuko inola ere merezimendu bezala baldintza gisa ezarri dena. Eskabideak aurkezteko epea hasi aurreko egunean hautagaiak dituzten merezimenduak bakarrik balioetsiko dira. Merezimenduak baloratzeko fasean, hautagai bakarra egonez gero, ez dira baloratuko, eraginkortasun eta efizientziagatik.

Merezimenduen fasean, gehienez ere, 30 puntu emango dira, atal hauen arabera:

1. **Deitutako lanpostuen antzeko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea, Indesaren barruan zein kanpoan:**

Eraikinen barrualdea garbitzeko taldeak antolatzeko esperientzia izatea.

Enplegu arrunteko lanetan, hilabete oso bakoitzeko puntu 1 emango da lortu nahi den plazaren funtzioen antzeko lanpostuetan jarduteagatik, urtebeteko esperientziatik (ezinbesteko baldintza) eta seigarren urtera arte (esperientzia barne) zenbatuta.

Zenbaketa egiteko, hautaketa-organoaren irizpidearen arabera alegatutako aldien egunen batuketa egingo da. Urteko zenbaketa 360 egunekoa izango da.



Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan izangaiek duten esperientzia egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

- Indesatik kanpo egindako lana 2010:

- o Curriculum vitae.
- o Sinatutako lan-kontratuak.
- o Lan-bizitza eguneratua.
- o Deitutako lanpostuaren antzeko zerbitzuak egin dituen enpresen ziurtagiria.

- Indesa 2010ean egindako lanak. (Ez da beharrezkoa esperientzia egiaztatzea).
Lanpostuan aldi baterako lanpostuz aldatuz gero, zenbatzeko baldintza 6 hilabetekoa izango da gehienez.

2. Euskara ezaupideak

Gehienez lor daitekeen puntuazioa: 4 puntu.

- 4 hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 4 puntu
- 3 hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 3 puntu
- 2 hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: 2 puntu
- 1 hizkuntza eskakizuna edo baliokidea: puntu 1

Eskabidearekin batera, euskara-maila egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da.

Ziurtagiria lor daiteke, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan beste bide edo prozedura batzuk erabili badaitezke ere.

<https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>



0 ERANSKINA - ESKABIDEA

Barne eta kanpo deialdi bateratuaren bidezko hautaketa prozesuan, garbiketa arloko ataleko arduraduna kategorian lan poltsa bat betetzeko probetan izena emateko eskabidea:

Aukeratu duzun modalitatea (**adierazi zer modalitate aukeratu duzun**):

- Barrukoa
- Kanpokoa

INDESA 2010 SLko ZUZENDARI-KUDEATZAILEARENTZAT

Izena eta abizenak: _____

IFZ _____

HELBIDEA _____

Telefonoa: _____

E-MAILA _____

Lehenengoa: Barne eta kanpo deialdi bateratuaren bidezko hautaketa prozesuan, garbiketa arloko ataleko arduraduna kategorian lan poltsa bat betetzeko probetan izena eman nahi dut

Dokumentazio hau erantsi dut:

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-

Bigarrena: Baimena ematen dut nire datu pertsonalak tratatzeko, beharrezkoa bada deialdi honen helburua betetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko _____ aren _____(a)

Izangaiaren sinadura:



I. ERANSKINA - LANPOSTUAREN LANTOKIA, BALDINTZAK ETA EGINKIZUNAK.

LANPOSTUA:

Garbiketa arloko atal arduraduna

DESTINOA:

Lantokia: hainbat zentro non Indesa 2010 SMk garbiketa-lanak egiten dituen.

SOLDATA:

Lanpostuen deskribapenari eta balorazioari buruzko memoriaren arabera.

EGINKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK

Indesa 2010 ren hitzarmen kolektiboan eta hitzarmen kolektiboaren eranskin gisa agertzen den lanpostuen balorazioari buruzko memorian ezarritakoaren arabera. ALHAO, 133 zk., 2024ko azaroaren 22koa.

https://www.araba.eus/botha/Busquedas/Resultado.aspx?File=Boletines/2024/133/2024_133_03629_C.xml&hl=

II. ERANSKINA – HAUTAKETA ORGANOA

A. Hautaketa organoaren osaera

- a. Presidentea: Indesa 2010 SMren Eragiketen Zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.
- b. Batzordekidea: Indesa 2010 SMren Garbiketa Arloko Burua edo hark eskuordetzen duena.
- c. Batzordekidea: Indesa 2010 SMren Orientazio Teknikaria edo hark eskuordetzen duena.

B. Idazkaritza

Hautaketa-organoaren idazkaria Indesa 2010 SMko idazkari kontuhartzailea izango da, edo haren ordezkoa: idazkariak ez du botorik izango.

C. Batzordearen ordezkariak

Enpresa Batzordeko ordezkari batek parte hartu ahal izango du, hitzarekin baina botorik gabe.



III. ERANSKINA – 2.3 ETA 2.4 OINARRIAK BETETZEN DIRELA ZINPEKO ADIERAZPENA ETA DATUEN BABESA

ZINPEKO ADIERAZPEN SIMPLEA

.....jaunak/andreak
(NAN/AIZ/pasaporte-zk.:.....;helbidea:.....
udalerrria,..... kalea,..... PK), "Lan-poltsa, garbiketa-arloari
atxikitako ataleko arduraduna" hautaketa-prozesuari dagokionez,

ZINPEAN AITORTZEN DUT

- Dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den osasun-arazorik ez izatea.
- Diziplinazko espediente/kaleratze bidez edozein administrazio publikotatik edo Euskal Sektore Publikoko sozietate publikotatik bereizita ez egotea, eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.

Baimena ematen diot berariaz INDESA 2010, S.L.ri nire identifikazio-datuak (izena, abizenak eta, hala badagokio, lortutako puntuazioa) iragarki-tauletan, egoitza elektronikoen eta webgune ofizialetan tratatzeko eta argitaratzeko, bai eta onartutakoen eta baztertutakoen zerrendei dagozkien ebazpenetan, enplegu-poltsaren antolamenduan eta langileak kudeatzeko prozesuetan ere, datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, adierazpen hau sinatzen dut..... (e) n, 2026(e) ko..... aren..... (e)(a) n.

.....
(Izen-abizenak)

.....
(Sinadura)